


azpeitian **zer?**

udal aldizkaria

165. zenbakia
2014ko maiatza



plaza en arte



azpeitia
udala

ale honetan zer?

3 Zerbitzuak eta erabakiak

4 Oroimen istorikoa

6 Sustapen ekonomikoa

8 Plaza

14 Motxak

15 Ingurumena


Argitaratzailea: Azpeitiko Udala
Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: EREGI, Euskara eta Komunikazioa

Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa
Ale kopurua: 7.000
L.G: SS - 1148/91

Azpeititik kanpo bizi arren, zure etxean jaso dezakezu Azpeitian Zer? aldizkari hau posta bidez. Egin eskaria 943 15 71 85 (Alkatetza) telefonoan.

telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00	Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79	Euskara Patronatua	943 81 45 18
Alkatetza	943 15 71 85	Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16	Udal Euskaltegia	943 81 19 47
Idazkaritza	943 15 71 98	Zapo Txoko	943 15 71 61	Lapatx Zabortegia	943 15 18 75
Kontuhartzaitza	943 15 71 89	Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60	Azpeitia Lantzen S.A.	943 15 71 83
Hirigintza	943 15 71 91	Eguneko Zentroa	943 15 74 96	Ingurugiro Etxea Fundazioa	943 15 17 13
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92	Liburutegia	943 15 71 95	Tokiko Agenda 21	943 15 70 70
Kultura	943 15 70 68	Udaltzainak	943 15 13 13	Kontsumitzaileen Informaziorako bulegoa	943 15 71 93
Komunikazioa	943 15 79 82	Suhiltzaileak	112	Baigera I	943 81 44 64
Kirolak	943 15 00 95	Igerilekua	943 81 41 21	Baigera II	943 81 23 89
Parekidetasuna	943 15 79 28	Kiroldegia	943 81 30 69	Ingurugiro Etxea Museoa	943 81 24 48
Emakumeen Txokoa:	943 15 70 55	Izarraitz Pilotalekua	943 81 25 63	Alkoholiko anonimoak	629 14 18 74



botika txandak

ALBERDI. Jose de Artetxe 6, Tel.: 943 81 59 74
Ekainaren 6, 12, 18, 24 eta 30

ARANBURU. Plaza Nagusia - Goiko kalea 2
Tel.: 943 81 13 50
Ekainaren 1, 3, 10, 16, 21, 22, 25 eta 27

BERISTAIN. Urbitarte auzoa 3, Tel.: 943 81 19 49
Ekainaren 5, 11, 17, 23, 28 eta 29

EIZAGIRRE. Enparan 29, Tel.: 943 81 12 74
Ekainaren 2, 7, 8, 13 eta 19

JACOME. Garmendi 21, Tel.: 943 08 02 58
Ekainaren 4, 9, 14, 15, 20 eta 26

zerbitzuak eta erabakiak

Estali gabeko igerilekua



Uda garaia iristear da, eta Azpeitiko Kirol Patronatuak estali gabeko igerilekuaren denboraldia abian jarriko du berehala. Honela, ekainaren 14ean zabalduko ditu ateak aisialdirako guneak eta irailaren 14era bitartean, egunero izango da irekita 11:00etatik 20:00etara.

Igerilkuaz gain, guneak eskaintzen dituen zerbitzuak honako hauek dira:

- 1.500 metro karratuko belarrezko solarium-a
- Komunak
- Txiringitoa
- 700 metro karratuko igerileku ludikoa

Sarreraren salneurriari dagokionez, iazko berdiñak izango dira:

Hiruhilabeteko bonoa

- Seme-alabarik gabe edo 25 urte azpiko diru sarrerarik gabeko seme-alabak dituzten familiak 182,36 euro
- 17 urte bitarteko norbanakoak 74,26 euro
- 17 urtetik gorako norbanakoak 108,68 euro
- 25 urtetik gorako ikasleak eta jubilatuak 81,51 euro
- Langabetuak 70,64 euro
- Familia langabetuak 118,53 euro


Sarrera

- 17 urtetik gorako norbanakoak 6,10 euro
- 17 urte bitartekoak 4,75 euro
- Langabetuak eta jubilatuak 4 euro

erabakiak

Maiatzaren 6an egindako Udalbatzan honako erabakiak hartu ziren:


- 1.- Udalbatzak 2013ko martxoaren 11n eta apirilaren 1ean egindako bilkuren aktak onartzea.
- 2.- Azpeitiko Udalaren eta Saiolan Enpresa berrikuntza zentruaren arteko hitzarmena, Urolako eskualdeko ekonomia suspertzeko, aho batez onartu zen.
- 3.- Azpeitiko herrian ekonomia sustatzeko diru-laguntzak: oinamriak eta 2014rako deialdia, aho batez onartu zen.
- 4.- 2014ko aurrekontuan 2. kreditu aldaketa aho batez onartu zen.
- 5.- Azpeitiko Baigera I eta Baigera II Jubilatuen Elkar-teetan dauden taberna-jatetxeak kudeatzeko kontratazio espedientea: zerbitzuen esleipenak aho batez onartu ziren.
- 6.- Mendizabal familiak Landetan egindako lagapena jasotzea aho batez onartu zen.
- 7.- Herriko plazaren ingurukoa. Udal mailako herri-konsulta eta proiektu aukeraketa proposamena aho batez onartu zen.
- 8.- Europar parlamenturako hauteskundeetan arituko diren mahaikideen izendapenaren berri eman zen.
- 9.- Galdera eta erreguak.



Gerra Zibileko errealitatea ezagutuz

Udalak eta Aranzadik hitzarmena sinatu dute 1936-1945 urteetako oroimen historikoa egiteko

azpeitiko Udalak, Aranzadi Zientzia Elkartearekin elkarlanean, 1936-1945 urteetako udalerriko errealitatea ikertzeko eta ezagutzeko programa jarri du abian, epe horretan, eskubide zibilen zapalketa jasan zutenen oroimena berreskuratzeko helbururarekin. “Gertatu zenaren historia jakitea udaletxearen lana da eta gure bizilagunen eskubidea. Zer gertatu zen galderari erantzuna eman behar zaio. Elementu objektiboak ezagutu behar dira, balorazioak gero bakoitzak berea egin dezala”, agertu du Eneko Etxeberría alkateak.



“Gertatu zenaren historia jakitea udaletxearen lana da eta gure bizilagunen eskubidea”

Ikerketa metodologia zientifiko eta objektibo bidez egingo dela aurreratu dute; “Horretarako, ahalik eta idatzizko, ahozko eta argazki dokumentazio gehiena biltzen saiatuko gara, baina ez Udal agiritegian bakarrik, El Ferrol edota Madrilgo agiritegietan ere begiratuko dugu. Pertsonen buruzko historia eta bizipenak bildu nahi ditugu, eta esan bezala, lana oso metodologikoa izango da”, esan zuen Juantxo Agirrek, Aranzadiko idazkariak.

Bilketa eta ikerketa lan horretan Jabi Bucés ikerlaria ibiliko da. “Azpeitiarren

laguntza beharrezkoa dugu hau ondo atera nahi badugu, herritarrek protagonista izatea nahi dugu. Bakoitzak bere etxean dituen datuak behar ditugu, argazkiak, dokumentuak... Historia guzti hoiek ez daude bakarrik artxiboetan, bakoitzaren etxean gordeta segitzen dute urte askotan”, esan du Bucesek. Honela, herritarrek eman nahi dituzten testingantzak azaltzeko, 699 809 130 telefono zenbakira deitu edota jbuces@aranzadi-zientziak.org posta elektronikoko helbidera idatzi dezakete.

Abendurako lan guztia amituta egotea aurreikusten dute arduradunek. Behin bukatuta, bildutako dokumentazioa Azpeitiko udaletxean izango da herritarren eskura.

OROIMENAREN BULEGOA

Ekainetik aurrera, Oroimenaren bulegoa eskuragarri egongo da azpeitiar guztientzat. Bertan, 1936-1945 urteetan errepresioa jasan zuten pertsonen edo senideen buruzko datuak eskatu ahal izango dute herritarrek. Guztiz doako zerbitzua izango da eta Udal Liburutegian egongo da kokatuta, asteazken eta ostegunetan 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Arduradunek agertu dutenez, urte guztian zehar jasoko dute dokumentazioa eta lan horretan parte hartu edota ikerketa-taldeari lagundu nahi dutenek, bertatik igaro beharko dute.

Ezin dutenek bertaratu, bestelako bitartekoak ere izango dituzte Aranzadi elkartearekin harremanetan jartzeko;

Telefonoz: 699 809 130

Webgune bidez:
www.aranzadi-zientziak.org

Helbide elektronikoz:
jbuces@aranzadi-zientziak.org

elkarrizketa



Bilketa eta ikerketa lan guztia Jabi Buces ikerlariaren esku egongo da.

Jabi Buces
ikerlariaren

1.- Zer berezitasun du Azpeitiak oroimen historikoa biltzeko?

Azpeitiko herriaren berezitasunak asko dira; bigarren errepublikaren baitan, karlismoa asko sartuta zegoen herrian, baina abtertzetaletasunerantz jotzen du, nahiz eta herri oso katolikoa eta kontserbadorea izan, Azpeitiko herriak herri euskaldunaren izaerari lehentasuna eman zion beti. Horregatik, ez da harrizkoa Euzko Gudaroztea osatzeko lekua Loiola aukeratzea. Candido Sasetaren gidaritzapean 1.349 gudari izan ziren eta Azpeitia erresistentziaren gune nagusia izan zen 1936ko iraila bitartean.

2.- Herritarren laguntza eskatu duzue.

“Nahiz eta herri oso katolikoa eta kontserbadorea izan, Azpeitiko herriak herri euskaldunaren izaerari lehentasuna eman zion beti”

Zer garrantzi du laguntzak zuen lanean?

Guretzat funtsezkoa da herritarren laguntza, ez baitugu inbestigazio historiko soil bat egiterik nahi. Gerra

zibil ostean eta diktaduraren lehen urteetan azpeitiarrek pairatutakoaren egia jakin nahi dugu. Nazio Batuek esaten dute hiru oinarriak direla egia, justizia eta erreparazioa. Gure lana lehenengo hori betetzea da. Azpeitiar biktima guztien izenak jaso behar ditugu jakiteko zein ziren eta zer gertatu zen eurekin, eta familiei eta herriari egia ezagutarazi behar diegu. Biktima asko daude dokumentatu gabe, beraz, biktimak beraiek edota beren familiak dira horren berri eman dezaketen bakarrak.

3.- Zein izango da eramango duzun prozesuaren pausoak?

Proiektua abian jarri dugu eta lehen pausoa, herritarren inplikazioa bilatzea izan da. Horregatik, erakusketa eta hitzaldiak antolatu genituen. Era berean, ekainean memorisren bulegoa zabalduko dugu, non nahi duten herritar guztiek informazioa eman edota jaso ahal izango duten. Paraleloki, artxibategi desberdinetan ari gara begiratzen gure inbestigaziorako. Hurrengo pausoa, ahozko testigantzen grabazioa izango da, eta behin dokumentazio eta testigantza guztiak jasota, lan guztia liburu batean jasoko da eta jendaurrean jarriko da, guztien esku egon dadin.

Ekonomia suspertzeko 350.000 euro bideratuko ditu Udalak

Enplegua sustatzeko, berrikuntzarako, formakuntzarako eta ekintzailetasunerako diru-laguntzak emango ditu

azpeitiarren kezka nagusienetakoa, gizarte zerbitzuekin batera, langazia da eta Udalak bat egiten du kezka horrekin. Apirileko datuen

arabera, 1.053 herritar daude Lanbiden izena emanda, %14,50eko langabezia tasa suposatzen duelarik. Honela, nahiz eta Udalak tresna magikorik ez izan,

ekintzailetasun aktiboa sustatzeko diru-laguntzak emango ditu 2014 urtean. Laguntza hauek lau lerrotan banatuko dira;



1.- Industria proiektu estrategiko edo berritzaileak

Dagoeneko abian dauden eta 20 langile baino gutxiago dituzten industria arloko enpresei laguntzeko 80.000 euro bideratuko dira. Enplegua sortu edo mantentzera zuzendutako proiektuak lagunduko dira, izaera estrategikoa, berritzailea eta interes publikokoak diren kasuetan (enplegua sortuko duten proiektuak badira, ikerketa proiektuak, berrikuntza eta garapen proiektuak edota merkatu berrietara irekitzeko helburuarekin teknologia eta makineria berrian egindako inbertsioak, besteak beste). Proiektu bakoitzari gehienez 8.000 euro emango zaizkio eta enpresa talde bakoitzeko, gehienez ere bi proiektu lagunduko dira.

“Apirileko datuen arabera, 1.053 herritar daude Lanbiden izena emanda, %14,50eko langabezia tasa suposatzen duelarik”




2.- Langabetuen formakuntza eta lan merkatuan sartzea erraztea eta aldi baterako kontratuean daudenen langileen lan baldintzen hobekuntzarako neurriak

Diru laguntza honek azpeitiarrak lan merkatuan sartzea ahalbideratzea eta lan baldintzak hobetzea helburu duten neurriak hartzen dituzten enpresak edo irabazi asmorik gabeko entitateak saritzea du helburu nagusizat.

Udalak 80.000 euro bideratuko ditu lerro honetara eta honela banatuko da; formazioa eskaintzen dutenei formazio ordu bakoitzeko eta ikasleko, 9 euro, aldiz, langabetuak kontratatu edota lan baldintzak hobetzeagatik, lanaldi osorako bada 2.000 euro eta lanaldi erdirako, 1.000 euro.

Diruz lagunduko diren proiektuen baldintzak:

- Enpresaren baitan, formazioa eskaintzea langabetuei. Formazioa teoriko-praktikoa edo praktikoa bakarrik izan daiteke.
- Ekintzen iraupen minimoa 30 ordukoa izan beharko du.
- Aldi baterako langileak, finko egiteagatik.



3.- Enpleguaren sorrera duten proiektu ekintzaileak eta izaera soziala duten proiektuak

Diru-laguntza honen onuradun izango dira, zerga-ordainketarako egoitza edo helbidea Azpeitiko herrian dauden irabazi asmorik gabeko entitateak. Lerro honetarako, 35.000 euro bideratuko ditu Azpeitiko Udalak, eta proiektuko 10.000 euro banatuko dira.

Diruz lagunduko diren proiektuen baldintzak:

Aurkeztutako proiektuak ekintzaileak direla ulertuko da, inplizituki balore solidarioak, komuniarioak eta gizarte-justiziakoak barneratzen dituztenak eta gizartearen onurakoak direnak. Era berean, enplegua sortzeko asmoa izango dute:

- Proiektua bera gauzatzeko enplegu berri baten edo batzuen sorrera beharrezkoa bada.
- Proiektuaren ezagaurriak eta xedea kontuan hartuta, etorkizun motzean enpleguak sortuko direla aurreikusten bada.



4.- Merkataritza eta lehen sektorearen arloetan enpleguaren sustapena

Azpeitiko Udalak 40.000 euro bideratuko ditu lerro honetara eta jarraian aipatutako jarduerak izango dira onuradunak:

a) Langabezia dauden pertsonak kontratatzea.

Hiru hilabeteko kontratua egiteagatik, 600 euro. Sei hilabeteko kontratuagatik, 1.200 euro.

b) Merkataritza arloko lehiakortasuna eta lehen sektorea sustatzeko ekintzak edo jarduerak egitea.

- Internet bidez produktuak salgai ipintzeko ataria martxan jartzea (merkataritza "on-line"). Gehienez 200 euro.
- Lehen sektoreko produktuen kontsumoa. Gehienez 400 euro.
- Lokalek edo komertzioek burutzen dituzten jarduerak edo inbertsioak egokitzeko eta behar berrietara moldatzeko (lokalk handitzea, negozio lerro berriak sortzea, erakuslehoiak berritzea, etabar). Gehienez 1.000 euro.

c) Merkataritzako eta lehen sektoreko jarduerak jartzea Azpeitiko Alde Zaharrean.

Gehienez, 3.000 euro emango dira proiektuko.

Azkoitiarrekin batera, beste laguntza

Azpeitiko Udalak emango dituen laguntzez gain, Iraurgi Berritzen garapen agentziak Azkoitian eta Azpeitian ekintzailetasuna sustatzeko diru-laguntzak eskuratzeko aukera ere izango da. Modu honetan, langabezia dauden eta enpresa berri bat sortzeko ideia dutenek 10.000 eurora arteko diru-laguntza jaso ahal izango dute, eta laguntza horiek Iraurgi Berritzen bitartez bideratuko dira. Hiru motatako diru-laguntzak jaso ahal izango dira: 2.500 euroko laguntza, edozein izaera juridikoko enpresa jarduera sortzeagatik; 5.000 euro edozein izaera juridikoko enpresaren jarduera gizarte ekonomiakoa bada (kooperatibak edo lan-sozietateak); eta, izaera estrategikoa edo berritzailea duten enpresa berrien sorrera bultzatzeko laguntza bereziak, gehienez 10.000 eurokoak.

Diru-laguntza hauek eskatzeko aukera izango dute 2014ko urtarriletik urtea amaitu bitartean martxan jarritako proiektuek.



Azpeitiko plaza, denon artean

Herriko enparantza berritzeko lehenbiziko herri-galdeketa ekainaren 13, 14 eta 15ean egingo da

Plaza, azpeitiarren bilgune izatea. Hori nahi du Udalak, eta horregatik, berritzea erabaki du. Izan ere, azken urteetan nekea nabari du plazak: zaharkituta ditu gune batzuk (kioskoa, komun publikoak...) eta bizitasuna ere itzaldu xamartuta du. "Herriko plaza herriaren bizi gunea izan da, historikoki: azpeitiarren topaleku nagusi izan da mendeetan, bertan egin direlako azokak, feriak, festak eta bestelakoak. Herri biziaren erakusle da plaza, herri baten izaeraren isla, eta horregatik da oso garrantzitsua herri batentzat.

"Prozesua azpeitiarrekin egin nahi da, herritarren iritzi eta ekarpenei garrantzia emanez"

Eta baita Azpeitiarentzat ere. Horregatik, horri buelta eman eta berri, indartu eta eguneratu egin nahi dugu. Herriko plaza bizia, dinamikoa eta gaurkotua nahi dugu, azpeitiarren topaleku izaera berreskuratu eta indartzeko, eta herriko

Alde Zaharrak zaharretik gutxi eta bizitik asko izatea nahi dugulako".

Prozesu hori, ordea, azpeitiarrekin egin nahi du Udalak, eta herritarren iritzi eta ekarpenak pisu garrantzitsua izango dute. "Azpeitiko Udal Gobernuak herritarren erabaki ahalmenean sinesten du, lau urtean behin bozka ematearekin bakarrik ez da herritarren hitza sustatzen. Aurrerago joan nahi dugu, beste pauso bat emango dugu, eta Azpeitian eta bailaran aurrenekoz, herri kontsulta bat egingo dugu".



Herri-kontsulta ekainaren 13, 14 eta 15eko asteburuan egingo da eta 16 urtetik gorako azpeitiar guztiek bozka ahal izango dute. Herri-kontsultan 3 izango dira egingo diren galderak:



- **Plaza oinezkotzea nahi al duzu?**
- **Plazak kioskoa izatea nahi al duzu?**
- **Plaza eraberritzeko hiru proiektu ezberdinetatik, zein duzu gustukoena?**

Galdeketaren kontaketa gardentasun osoz egingo da, eta emaitza guztiz errespetatzeko konpromisoa du Udalak. Behin proiektua aukeratuta, jarraipen batzorde ireki bat eratuko da, aukeratutako eredu hori nola garatu aztertu eta obrak jarraitzeko. Batzorde horretan herritarrek ere hartu ahalko dute parte.

“Erronka handia daukagu aurretik baina emaitzak merezi du. Demokrazian beste pauso bat ematera goaz, herria herritik eta herriarekin egitean sinesten dugulako. Baina herritarren partaidetza beharrezkoa dugu. Herriari dagozkion gauzak herritarrok geuk erabakitzeko aukera ederra da, guztion plaza nolakoa izatea nahi dugun denon artean erabakitzeko modua daukagu, eta horregatik, zuen iritzia emateko eskatzen dizuegu”.

Zalantzak argituz

- **Proiektu irekiak.**
Aurkeztutako hiru proiektuak ez dira itxiak. Honela, herritarrek bozka dezakete kioskoa kentzea eta kioskoa duen proiektua, edo alderantziz, kioskoa mantentzea eta kioskoa ez duten proiektuetako bat. Izan ere, bozkatutakoa errespetatuko du Udalak, eta horregatik, Jarraipen Batzorde bat eratuko da bozketaren ondoren, hautatua izan den proiektua bozketaren emaitzera egokitu ahal izateko.
- **Oinezkotzearen ondorioak aparkalekuetan.**
Bozketako galdera bat plaza oinezkotzea nahi al den izango da. Ezezkoak irteten bada, ez da aldaketarik izango eta autoak aparkatzen jarraitu ahal izango dute azpeitiarrek. Aldiz, oinezkotzea erabakitzen bada, gaur egun plazan dauden 75 aparkalekuak galdu egingo lirake. Hala ere, Alde Zaharreko bizilagunei irtenbide bat emateko, Soreasu eraikinera bideratuko dira aparkalekuak. Honela, Alde Zaharreko bizilagunei txartel bat emango zaie gaur egun plazak dituen baldintza berdinetan, hau da, 20:00etatik 09:00etara doan aparkatu ahalko dute Soreasun.
- **Oinezkotzearen ondorioak trafikoan.**
Bozketaren emaitza plaza oinezkotzea irteten bada, ondorioak izango lituzke trafikoan. Horregatik, Udala bizilagunekin eta saltokiekin bilduko litzateke trafiko nola erregulatu erabakitzeko denen artean.
- **Bozkatzeko tokia eta ordutegia.**
Bozkatzeko hautestontziak udaletxe barruan jarriko diren mahaietan egongo dira ekainaren 13, 14 eta 15eko egunetan, 09:00etatik 20:00etara bitarteko ordutegian. Bozketako hiru egun ofizialetan botoa eman ezin dutenek ekainaren 9tik 12ra bitartean egin ahal izango dute, udaletxean, ohiko ordutegian.





1. AUKERA

Proiektu honek erabilera anitzeko plaza malgua proposatzen du. Dama-jokoko tablero baten moduan antolatzen du plaza eta tableroaren zati bakoitza beharren arabera erabili ahalko da. Kioskoaren ordez eszenatoki berria egitea proposatzen du, berdura plazaren sarreraren alde batean. Harrizko plaza izango litzateke, eta espazioari freskura eta arnasa emateko landareak jartzea proposatzen du.



2. AUKERA

Herritarrek plaza nagusiaren inguruan duten betiko irudiari eutsi nahi dio proiektu honek, eta horregatik mantendu ditu kioskoa eta arkupea. Plaza Nagusia Alde Zaharraren parte irudikatzen du, eta lotura eta integrazio hori islatzeko adokinak erabiltzea proposatzen du. Horrez gain, Foruen ibilbiderantz eta ibairantz zabaltzeko asmoa ere jasotzen du, graden bidez.



3. AUKERA

Proposamen honek bi helburu nagusi ditu: komunikazioa hobetzea eta plazako aldapa kentzea. Horretarako, kioskoa kendu eta azoka plazaren aurrean eskenatoki finkoa jartzea proposatzen du. Desnibela, berriz, jarleku antzeko eskailera luze batzuen bidez leunduko luke. Irisgarritasuna bermatzea du helburu, eta zorua alde zaharreko besteekin berdintzea proposatzen du.



Herritar guztiena iristen

Azpeitiko lehenbiziko herri-kontsulta izanik, Azpeitiko Udalak herritarren parte-hartzea bultzatu nahi du bereziki. Honela, herriko gune desberdinetan jarri dira proiektuak eta hauen azalpenak; udaletxe azpian, Betharram eraikinean eta Sanjuandegiko Baigera taberna kanpoan. Gainera, plazako irudi zahar eta berriez osatutako erakusketa ikugai jarri da plazan bertan.



Bestalde, ahalik eta iritzi eta ekarpen gehien jasotzeko asmoz, herritar gehiengoarekin biltzen saiatu da Udala. Honela, alde batetik, ahiru proiektuen aurkezpen irekia egin zen plazan, bestetik, Alde Zaharrean izango duen eraginaren jakitun, bertako bizilagunekin bildu zen eta azkenik, 16 urtetik gorakoek bozka izango dutenez, herriko ikastetxeetan izan da ekimena aurkezten eta gazteen partaidetza sustatzen.



Azkenik, Azpeitiko Udaleko webgunean eta etxetara banatutako eskuorrietan aurki dezakezu herri-kontsulta eta proiektuen inguruko informazio guztia.

Azokako postu denak, plazan



berdura Plazako bigarren solairuan ez da salmenta posturik izango aurrerantzean. Izan ere, Berdura Plaza eraikineko sabaiaren lanak direla-eta, bigarren solairuan lizentziarekin salmenta postua zutenak azoka egunean plazara igaro dira. Azpeitiko Udala bi hilabetez egon da saltzaileekin bilerak egiten postu berriei lekua egiteko asmoz, eta plazaren birrantolaketa egin eta zenbait ibilgailu kendu ostean, azokak itxura eta antolaketa berria izan du.

Kolonbiako ordezkarien bisita eskualdean



Urola Erdia bailarak Kolonbiako ordezkarien bisita jaso zuen maiatzaren 16an. Bisitaren helburua, eskualdeko enpresei Kolonbiak eskaintzen dizkien enpresa aukeren berri ematea izan zen Rodrigo Arizabaleta, Colombiako Euskal Jatormia duten Enpresarien Elkarteko Presidentea eta Jose Vicente Catarain Bogotako Euskal Etxeko Presidentearen eskutik. Biek, argi erakutsi zuten Kolonbia merkatu interesgarria dela; azken urteetan %4ko hazkundearekin eta behar ugarirekin.

Madalenako ospitale zaharra, interpretazio zentroa



erortzeko zorian zegoen eraikina guztiz eraberritu du Jesusen Lagundiak. Berreraikuntza lanek urtebete iraun dute, 2013ko apirilean hasi 2014ko apirilean amaituz. Madalenako ospitale berritua interpretazio zentro ignaziar bat izango da aurrerantzean, bereziki Ignaziotar Bidea egiten duten erromesei zuzendua. Zentro honetan, panel, audio eta ikus-entzunezkoen bitartez, San Ignazioren bizitza eta ospitaleko bere egonaldia gogoratuko dira. Aldi berean zentroak Jesusen Lagundiaren txiroen aldeko hautua ere azalduko du. Eraikinak hitzaldiak egiteko areto bat du ere.

agenda - ekaina

7, larunbata

III.LAGUN ONAK EGUNA

(Lagun Onak Futbol taldea)
09:00etan futbol partiduak, Garmendipen. Bazkaria eta abar...

ESKOLAKO AGENDA 21

Erakusketa Material Birziklatuekin eskulanak
12:00-14:00, Betharram Aretoa

SEI-SHIN-RYUKO KARATE JAIALDIA (Azpeitiko karate Elkartea)
Hasiera: 16:30, Kiroldegia.

LASAOTARREN EGUNA-ESPABILAU EGUNA

11:00 Tunturroen kalejira
11:30 Herri kirolak: Lasaoarren arteko lehia. 3Talde arituko dira: Gazteak 12-30, gazte izaten jarraitu nahi dutenak 31-40, eta helduak 41 Trontzan, sokatiran, txinga, pelota saku karrera...
Hamaiketako eta salda egongo da
13:00 Paella Txapelketa
Herri kirolatan aritu diren hiru taldeen artean lehiaketa
14:00 Herri kirol eta paella onenaren sari banaketa
14:30 Herri bazkaria
16:00 Mus Txapelketa
17:00 Haurrentzako jolasak eta herri kirolak (arratsaldean zehar Lasako argazki eta bideom erakusketa/emanaldia)
20:00 Espabilau bertso kalejira. Kaxkoan zehar herriko bertsolari-ek kantatuko dute eta kalejiran ibiliko dira trikitilariekin
21:00 Afaria

ENERGIAREN FESTA TALLERRAK ETA ERASKUSKETA
14:00etatik 14:00etara, Ingurugiro Exea Museoa

URREZKO AIZKOLARIEN BANAKAKO TXAPELKETA (Egur Sport)
19:00etan, Izarraitz Frontoian

8, igandea

SANJUANDEGIKO VII.ESKOLARTEKO KROSA (Loiolabide-zahar)
Ordua: 11:00etan, Sanjuandegi Auzoan

10, astearta

XXXII.EUSKAL ANTZERKI TOPAKETAK

KARTEL ERAKUSKETA
Ekainaren 10etik 22a arte
Astelehenerik-ostiralera
Ordua: 18:00- 20:00
Larunbat eta igandetan
12:00- 14:00, Betharram Aretoa

11, asteazkena

EUSKARA OSPELETIK EGUTERA"RA DOKUMENTALA eta HITZALDIA DAVID ANAUT "EUSKARAREN KATE HAUTSIK" LIBURUAREN EGILEAREKIN
19:00etan, Sanagustin Kulturgunean

13,14 eta 15

AZPEITIA CUP (IRG Cup Kirol Kluba)
Ordua: Goiz-arratsalde, Garmendipe futbol zelaia

13, ostirala

AZPEITIKO KARMELO ETXEGARAI eta UROLA IKASTOLAK Amaierako jaialdia
19:00etan, Azpeitiko kiroldegian

ZUMBA ERAKUSTALDIA
19:00etan, Sanagustin Kulturgunean

14, larunbata

SAN JUANAK 2014- URRESTILLA
16:00 Herri krossa
19:30 Bentzaharreko Mutiko alaiekin kantujira

NUARBEO TRINIDADE JAIK

16:30 Sokamuturra
Berto poteoa Erriarraitz taldearen eskutik
20:30 Frontoian herri afaria
23:30 En Tol Sarmiento taldearen kontzertua eta ondoren Triki- zio taldearekin erromeria goizalderarte
Goizaldeko Baratzuri Sopa

15, igandea

SAN JUANAK 2014- URRESTILLA- Jubilatuen eguna
12:00 Meza Nagusia
12:45 Metal Boskotea
14:00 Bazkaria (Bazkalondoan kantaldia)

NUARBEO TRINIDADE JAIK

Meza ondoren:
13:00 Azpeitiko Musika Eskolako Trikitilari eta Txistulariak
Eta honekin batera urtero herriari eta bisitariari eskaintzen zaie
Luntxa, Arratsaldeko 16:30 puxgarriak
18:00 Gipuzkoako Artzai Txakur Txapelketarako sailkapen saioa, 7 parte hartzearekin. 19:30 Motoserra apustua edo "Logging Show" amerikar erarara. Parte-hartzaileak: Juan Barrenexea "Altzate" Elgoibartarra, Iosu Aizpuru eta Xabier Olaiola
Iluntzean Izer eta Alabier trikitilari-ekin erromeria

16, astelehena

NUARBEO TRINIDADE JAIK

Arratsaldean: Ume jolasak, tailerrak eta txokolatada
Ume jolasak, Tailerrak eta Txokolatada
Toka txapelketa
Iluntzean: Laja eta Narbaiza trikitilari-ekin erromeria

18, asteazkena

ASTEBURU MUSIKALA
JUAN ANTXIETA MUSIKA ESKOLAKO JAIALDIA
19:30etan, Soreasu Antzokian

ESKOZIARI BURUZKO HITZALDIA
19:00etan, Sangustin Kulturgunean

19, osteguna

GINASIA ERRITMIKOA KURTZO AMAIERAKO JAIALDIA
(Loretoki Azpeitiko Gimnastika erritmikako taldea)
17:00etan, Kiroldegian

20, ostirala

ASTEBURU MUSIKALA
IRAURGIKO ABESBATZA ETA MUSIKA TALDEA
19:00etan, Sanagustin Kulturgunean

SAN JUANAK 2014- URRESTILLA
22:15 Pilota partiduak. Ondoren, GUGAZ erromeria

21, larunbata

SAN JUANAK 2014- URRESTILLA- GAZTE EGUNA
17:30 Artisau azoka
19:00 Sorgin poteoa
21:00 Gazte afaria
23:00 Kontzertuak: GLAUKOMA + MCONAK + GARILAK 26

22, igandea

OÑATZ AUZO- SAN JUANAK
Goizeko 12:00etan meza ondoren, herri kirolak
Egun gutzian zehar giroa alaitzeko Haritz eta Montte trikitilariak

ENPARAN KALEKO KORPUTZ JAIK
10:00 Itxerfauak zirti-zarta
Txistulari-ekin kalejira

12:00 Herri Meza- Frantziskanetako elizan
13:00 Luntxa, Zelai-Luze Elkartean
14:00 Bazkaria Baigeran
Omenduari plaka banaketa
Berto saioa eta Trikitilariak
19:00 Festa bukaeran trikitilari-ekin Enparan Kalean kalejira

23, astelehena

ASTEBURU MUSIKALA-SAN JUAN BEZPERA
IZARRAITZ TXISTULARI TALDEA
Animazio ekitaldia
Kaleetan zehar, 19:30ean

MUSIKA ESKOLAK ANTOLATUTA
SAN JUAN BEZPERAKO SAN JUAN SUA EKITALDIA
22:00etan, Plaza Nagusian

SAN JUANAK 2014- URRESTILLA
20:00 Poteo herrikoia
21:00 Pregoia, segidan herri afaria
00:00 San Juan zuhaitza sartzeta eta sua piztea
00:30 Dantzaldia LAKET taldearen eskutik

24, asteartea

ARTE ETA DISEINO

Ikasleak urtean zehar egindako lanen erakusketa
Ekainaren 23tik 30a arte
Astelehenerik-ostiralera
Ordua: 18:00- 20:00
Larunbat eta igandetan 12:00- 14:00
Betharram Aretoa

Umeen marrazkiak ERAKUSKETA, Sanagustin Kulturgunean

OÑATZ AUZO- SAN JUANAK

Goizeko 11:30an meza Nagusia, San Juan Bataiatzailearen ome-
nez, Azpeitiko koroaz lagunduta eta udalberriko loreen be-
deinkapena. Ondoren, hamaiketako koruko partaide auzoko
jubilatuentzat, Haritz eta Montte trikitilari-ekin alaituta

SAN JUANAK 2014- URRESTILLA- San Juan Eguna
12:00 Meza Nagusia
12:45 Azpeitiko Udala Musika Banda
13:00 Buruhandiak
16:30 Haurrentzako puzgarriak
17:30 Merienda
22:00 Urrestillako gaztetxoak plazara!

25, asteazkena

SAN JUANAK 2014-URRESTILLA
12:30 Sagardo dastaketa
14:00-14:45 Museko izen ematea
15:00 Mus txapelketa (izen-ematea: 14:00-14:45)
22:00 Mojito gaba

ENERGIA JARDUNALDIEN BAITAN
HITZALDIA:"Goienar"
19:00, Sanagustin kulturgunean

26, osteguna

SAN JUANAK 2014-URRESTILLA- San Juan Hirugarrena
16:00 Herri-joasak umeentzat
23:00 Zuhaitzaren entzerroa

27, ostirala

ASTEBURU MUSIKALA
Kitarra poteoa
Elizkaleko jaiak
Ordua: 19:00

HAUR ETA GAZTETXOEN ANTZERKI TAILERRAKO
EMANALDIK
19:00etan, Sanagustin Kulturgunean

INGURUMENAREN ASTEA



Maiatzaren 30etik
ekainaren 8ra

INGURUGIRO ETXEA MUSEOAN



EGITARAUA

Ekainaren 5ean
INGURUMENAREN MUNDU EGUNA
19:00etan

**“AURREZTU ETXEAN,
ENERGIA GUTXIAGO KONTSUMITUZ”**
Hitzaldia, Joseba Garmendia (TINKO STS)

Ekainaren 6an
17:30etik 19:00etara

“HARTU ETA UGALDU”
Landareen ugalketaren inguruko tallerrak

Ekainaren 7an
11:00etatik 14:00etara

“ENERGIAREN FESTA”
Tallerrak eta erakusketa

MATERIAL BIRZIKLAGARRIEKIN EGINDAKO ESKULANEN ERAKUSKETA

Azpeitiko ikasleek egindako eskulanak

Maiatzaren 30etik ekainaren 8ra - Betharram aretoan

Astegunetan 18:00-20:00 eta asteburuetan 12:00-14:00